

LOS MONTES DE VITORIA / GASTEIZKO MENDIAK

Antolakuntzaren jarraibideak probak dirauen bitartean parte-hartzaileek jarrai ditzaten:

INGURUGIROAREKIKO ERRESPECTUA ETA KIROLEAN JOKABIDE EGOKIA IZATEA

Montes de Vitoria-Gasteizko Mendiak proba ingurugiroarekiko errespetu osoz burutzen da. Proba edertasun handiko inguruetatik igarotzen da, parke natural gisa katalogatutakoak, hortaz, parte-hartzaile guztien eta antolakuntzaren betebeharra izango da: ingurua babestea, proba igarotzen den tokietako ondare-balioa eta proba bateragarri eginez; seinaleak errespetatzea; zaborra horretarako prestatutako tokietan botatzea, baita kontrol-eremuetan edo edari zein janari guneetan ere; bide-seinaleei jaramon egitea; laborantzak, ganadua eta jabetza pribatua orohar errespetatzea, proba igarotzen den babestutako eremuetako baliabide naturalen eta kulturalen gaineko eragina ahalik eta txikiena izan dadin.

Parte-hartzaileak beraiek sortutako kalteen erantzule izango dira, baldin eta arduragabekeriaz jokatu badute. Parte-hartzaileek momentu oro errespetuz jokatu beharko dute eta kirolean jarrera egokia mantentzera behartuta daude. Halaber, lehenbailehen jakinaraziko dute, gertuen dagoen kontrolean, honen harira suertatu daitekeen edozein gertakari, proba uzten dutela edo beste edozein gorabehera.

Parte-hartzaileentzako arauak eta betebeharrak, naturarekiko errespetua eta zor zaion babesari dagokionez.

- * Irteerara **zure kotxez** gerturatzen bazara, antolakuntzak adierazitako tokian edo araubideak aurreikusitako tokietan **aparkatu beharko duzu**.
- * **Ingurua zaindu**. Ez egin kalterik baliabide natural, geologiko zein kulturei.
- * Antolakuntzak ezarritako eta seinale bidez adierazitako **ibilbidea jarraitu**, ez atera ibilbidetik. Bigarren mailako bidezidorrak ekidin. Ez hartu landak zeharkatzen dituen lasterbiderik. Bihurguneetan, ez bidea laburtu bihurgunearen barneko alderdia erabilia.
- * **Ez bota zaborrik** (hondakinak, bilgarriak, janariak, materiala, pilak...) horretarako jarritako edukiontzietatik kanpo eta antolakuntzak horretarako prestatutako tokietatik kanpo. Gorde zure ontzi eta bilgarriak eta utzi itzazu toki egokian.

- * Zaborrik ez sortzeko asmoz, **erabili bakarrik beharrezkoak** diren edalontzi eta janari zein edari guneak.
- * Ez igorri seinale argidunik ezta distirarik ere, kopeta-argia salbu gaez egiten den tarterako.
- * Gainontzeko parte-hartzaileen jokabide arduragabeak antolakuntzari jakinarazi.
- * **Ez garraxirik egin** ibilbidean zehar. Gaez igarotzen den ibilbidean, isilik egon edo baxu hitz egin, animaliei edo gainontzeko pertsoneri molestatu gabe.
- * **Ez zapaldu eremu hezeen barnealdea**: urmaelak, errekaetoak, zohikaztegiak etb.

Ingurune-arau hauek ez betetzea, edota indarkeriazko jarrerak zein xenofoboak izatea, **zigortzeko edo kanporatzeko** arrazoiak izango dira.



Arau hauek honako hauetan ezarritako jarraibide eta irizpideei jarraitzen diete: ***EUROPARCeko maturagune babestuetan mendiġo lasterġetak ġaratzeġo jardunbide egoġien ġida***

